

# Trantsizioak

## Euskal Herriko historia hurbilari begirada selektiboa

- **Trantsizioak** erakusketan, ARGIAko argazki artxibo historikoan gordetzen diren milaka argazkien aukeraketa egin dugu, azken 40 urtetan izandako eraldaketa sozial eta politikoak islatu asmoz.
- Erakusketa **Oñatin** zabalduko da **estreinakoz ARGIA EGUNAREN bezperan, irailaren 19an (larunbata) eguerdiko 12:30ean Gaztelekuan**. Inaugurazioaren unean proiektuaren aurkezpen txiki bat egingo da eta lunch txiki bat eskainiko zaie bertaratutakoiei (\*zeliakoentzat egokitutako jan-edana ere egongo da).

1970eko hamarkada amaierako giro sozio-politiko mugituan ARGIA astekarian ere aldaketa ugari eman ziren. Besteak beste, euskal prentsaren dekanok magazin modernoan itxura hartu zuen eta argazkiei toki gehiago egin zitzaion.

Hala, **ARGIAren argazki artxibo historikoak 1976tik aurrera eta 80ko hamarkadan zehar eztanda egin zuten hainbat gaien inguruko altxor grafikoak gordetzen ditu**, esaterako euskalgintzari dagozkionak. Horieta zenbait argitaragabeak dira gainera.

Euskararen aldeko kanpainak, ikastolen mugimendukoak, nuklearren kontrako borroka, Franco hil osteko errepresioa, intsumituen ekintzak... Apaletatik erreskatatu ditugun argazkiok, garai haietan protagonista izan zirenen esanekin eta astekarian argitaraturiko edukiekin osatu ditugu, testuinguruan kokatu aldera.

“Trantsizio” hitzaren adiera zabal eta anitzari heldu diogu, etengabeko krisi, eraldaketa eta trantsizioetan bizi baikara munduan eta Euskal Herrian, izan energiaren arloan edo eskubide zibilen defentsan. **Erakusketa honetako irudietan, 1970eko hamarkadatik gaurdaino aldaketa horiek utzitako arrastoak daude ikusgai**. Euskal Herriko historia hurbilari errepaso egin diogu modu selektiboan, aurrez aurre ikus dezagun gure burua ispiluaren aurrean.

### Argiako ale zaharrak ukigarri

Erakusketa osatzeko ale zaharrak ere jarriko dira hainbat mahaitan, ukitu eta kontsultatzeko moduan –astekariak 1980an aldatu zuen izenez eta *Zeruko Argia* izatetik gaur egun ezagutzen dugun ARGIA

izatera igaro zen—. 1960ko hamarkadako *tabloide* formatuko astekariak izango dira bertan edota oihartzun handia izan zuten zenbaki historikoak.

Erakusketa ibiltaria izateko bokazioz jaio da eta asmoa da Oñatin hainbat astez egon ostean beste herri batzuetara ere eramatea.

**ARGIA** buru-belarri dabil berdintasunean, parte-hartzean eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako bere komunikazio proiektua lantzen. Erakusketa honen bidez herrietako eragileekin harremanak estutu nahi ditu aurrera begirakoak elkarrekin marrazteko.

### Informazio gehiagorako:

Erakusketa antolatu eta osatzeko lanetan Urko Apaolaza Avila kazetaria aritu da. Informazio gehiagorako berarekin harremanetan jar zaitezke.

- Telf.: 943 37 15 45 / 609 87 96 49
- E-posta: [uapaolaza@argia.eus](mailto:uapaolaza@argia.eus)

ARGIAren 2.473 zenbakian *Trantsizioak* erakusketaz argitaraturiko erreportajea:

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2473/trantsizioak-erakusketa>

### Atxikitako irudien azalpena:



Lehendabiziko korrika 1980ko azaroaren 11n abiatu zen Oñatitik, Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren sorreraren egoitza izan zen Unibertsitate zaharretik *Zuk ere esan bai euskarari* lelopean. (Argazkia: ARGIA artxiboa)



Ipar Euskal Herrian 1992an suspertu zen mugimendu antimilitarista. Urte hartako udaberrian polizia frantziarrak lehen intsumitua atxilotu zuen eta Patxa Kolektiboak astebeteko bizikleta martxa antolatu zuen protesta egiteko. (Argazkia: A.Bayo / ARGIA artxiboa)



Errenterian 1978ko urtarrilaren 22an sexu erasoen kontra egindako manifestazio jendetsua. Ekitaldia, sortu berria zen Gipuzkoako emakume taldeen koordinadoraren kanpaina zabalago bati eman zion hasiera. (Argazkia: ARGIA artxiboa)